

taltzen dauanean, eta oiñaztuak eztenkada zorrotza iduri, saltu dagianean, errege-semea gogoratu e te da erregek bertanbera itxi dauan ama gaixoaz ? Okullua giñarrez garbitzen diardu onek eta begiak zapiz legortzen... Eta bere semea, Te pantar basamortuan barna lau-oinka, oroituko e te ama gaixoaz ?

Ama, begira, oindiñok egunak dirau ; baiña, gaua noiz jausiko. Ez dator iñor auzoko bide zear. Artzaintxoak itxiko zituan onezkero Iarre ta zelaiak, eta orain etxean dagoke. Soloetako gizonak be lanari itxi ta azpikietan etzan dira euren txa boletako itzalpean, odei itsusiei begira. Orain, ama, ez egidazu ikastekorik esan ; itxi nasai liburuak, mai gaiñean. Neure aita lez andi naitenean, ikasi bear dan guztia ikasiko dot. Baiña gaur, gaur ba karrik, ama, esaidazu, ez naz ba gogoratzen, Te pantar'ko basamortua nun dagoan !

18

EURI-EGUNA

Odei ixillak pillotuz doiaz arin-aringa, basoko goiertz baltzizkan. (Ez urten, ume !) Zingira-ezpana lerroz lerro inguratzen daben palmondoak zabuka dagoz, lotan lez, zeru ituntxoari buruz. Muturik itxas-kaioak, ego loiak bilduta, tamarindoa ren adarkimuetan. Itzal bat be, gero to sakonago, ibaiaren sortalde-muturrean dabil errondari.

(Entzun, esiko erromaran lotuta dagon beiak orru dagi amorru bizitan ! Seme, itxain emen, kortara eroatera noia-ta). Astrapaladan doiaz gizonak zelai, solo ta landa ureztatu zear, ur-maeletatik urtendako arraiñak artzera nunbait. Errekaztoak egiñik doia ura bidexkaetan ; jolas antzo amagandik iges egin dauan ume irribarretsua dirudi.

(Ixillik ; ontzidunari deiez dago norbait, ubidean ! Egun-argia, barriz, joan doa, seme, ta ontzia itxita daukagu !) Itxura danez, lau-oinka datorren euri zoroaren gaiñez dabilkigu zerua, zamari bai'litzan. Ibaia, eroapen bage, nastu ta rrosi yaku. Emakumeak iraduz, ariñeketan datoz Ganges'tik, edarrak sorki gaiñetan.

(Argiak gertutzera noia, gaur goizetik illuntzen dau-ta ! Ez urten, seme !) Azokako bidetik ez dabil arimarik. Errekara jasten dan kalea irristakor dago ta errez labantzen. Orruz daukazu aizea ; sare artean arrapatu pizti bat dirudi banbu-ostotzan burrukari.

INGIZKO ONTZIAK

Egunero, neure ingizko ontzitzoak jaurtzen ditut, bata bestearen atzetik, ur-beera. Izki baltz andiz margotuta neure izena daroie, bai ta neure erriarena be. Eltzen diran ondartza ez-ezagunean norbaitek aurkitu ba'daiz, jakingo dau arek ni nor nazan. Ene etxeko baratzean azitako siuli-loraz be-